

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	KRISTALEN GARBIKETA ERAIKIN ETA LOKALETAN	Iraupena	30
Kodea	MF1087_1		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Gizarte-arreta		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Zoru, pareta eta sabaien garbiketa, tratamendua eta mantentze-lanak eraikin eta lokaletan.	Iraupena	30
	Barruko altzarien garbiketa		30
	Makineria erabiliz garbitzeko teknika eta prozedurak		60
	Eraikin eta lokaletan gainazal eta altzariak garbitzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1087\_1. KRISTALAK GARBITZEA ERAIKIN ETA LOKALETAN

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1 Gainazal kristaldun moten ezaugarriak identifikatzea eta azaltzea, eta gainazal horien garbiketarekin erlazionatzea.
- E11.1 Altuerari lotutako arrisku-kondizio bereziak aztertzea, eta haiek prebenitzeko ekintzak zehaztea.
- E11.2 Kristaletan sortzen eta pilatzen diren orban- edo hondakin-motak deskribatzea, eta haiek garbitzeko behar diren prozedura, tresna, gehigarri eta produktuekin erlazionatzea.
- E11.3 Gainazal kristaldun mota bakoitzaren abantailak eta eragozpenak azaltzea, zainketari eta garbiketari dagokienez.
- E11.4 Makina edo tresnen erabilera justifikatzea, kristal-motaren, kokapenaren (barrukoa edo kanpukoa) eta lan-metodoaren arabera.
- E11.5 Gainazal kristaldunei dagokien kasu praktiko batean:
- Kristaldun eremuaren ezaugarriak, iristeko zailtasunak eta ingurunerako arriskuak zehaztea, eta haien arabera produktu, makina eta tresnak hautatzea.
  - Altzariak kentzea lan-eremutik, eta haiek berriro jartzeko modua azaltzea.
- E11.6 Pintura-hondarrak eta hondakinak kentzeko erremintak aztertzea, eta haiek erabiltzea beharrezkoa den kasuak zehaztea.
- A2 Ekipamendua hautatzea eta deskribatzea (kristalak garbitzeko makinak, gehigarriak, tresnak eta produktuak) haien aplikazioak kontuan izanda, eta haien eraginkortasuna eta erabilgarritasuna aztertzea.
- E12.1 Garbitzeko makina eta tresnak deskribatzea, funtzioak, erabilera-arauak, manipulazioari lotutako arriskuak eta ikusizko azterketa eta garbiketa azalduz.
- E12.2 Kristalak garbitzeko produktuak aztertzea, ingurumena kaltetzen ez dutela kontuan hartuta.
- E12.3 Garbitzeko produktuak haien aplikazioen arabera sailkatzea, eta dituzten propietateak, abantailak eta erabiltzeko moduak azaltzea.
- E12.4 Kristalak garbitzeko produktuen kasu praktiko batean:
- Garbitzeko produktuen etiketak eta segurtasun-fitxak azaltzea, eta haien interpretazioa bermatzea.
  - Egin beharreko lanerako produktu egokiena hautatzea, eta aukera hori arrazoitzea.
  - Garbitzeko produktua manipulatzeko eta dosifikatzea, haren erabileren arabera.
- E12.5 Kristalak garbitzeko beharrezko ekipamendua kontserbatzeko eta mantentzeko prozedurak azaltzea, eta behar den unean erabilgarri izango dela bermatzea.
- E12.6 Garbitzeko tresna, makina, gehigarri eta produktuak biltegitratzeko kondizioak deskribatzea, haien ezaugarriak eta segurtasun-arauak kontuan hartuta.
- E12.7 Produktu toxikoen hondakinak ezabatzearen onurak argumentatzea, ingurumena babesteko araudia oinarri hartuta.
- E12.8 Ur- eta energia-kontsumo orekatuaren ondorioak deskribatzea, erabilera arduratsua kontuan hartuta.
- A3 Kristalak garbitzeko prozedurak zehaztea, haien espezifikotasuna alderatuz.
- E13.1 Kristalak, barrukoak eta kanpukoak, garbitzeko metodoak deskribatzea, gardentasuna-irizpideei jarraikiz.
- E13.2 Garbiketa-prozedurak sailkatzea, gainazal kristaldunen ezaugarrien eta higiezinaren segurtasun-protokoloen arabera.

EI3.3 Kasu praktiko batean: garbiketa-prozedura hautatzea kristal-motaren, arriskuaren, kokapenaren eta segurtasun-protokoloen arabera, eta aukeraketa justifikatzea.

A4 Kristal-garbiketa zehaztea eta gauzatzea, metodoa, ekipamendua eta produktuak itxaroten den etekinaren arabera zehaztuz.

EI4.1 Altzariak garbitzeko kasu praktiko batean:

- Kristalak garbitzeko garrantzitsua den informazioa ateratzea, zereginaren sekuentzia eta gauzatzeko gutxi gorabeherako denbora markatuz.
- Garbitzeko prozedura gauzatzeko ekipamendua hautatzea, aldez aurretik zehaztua, eta ingurumena kaltetzen ez duten produktuak hautatzea.
- Produktua prestatzea, fabrikatzailearen erabilera- eta dosifikazio-jarraibideen arabera.
- Prozedura aplikatzea makinak, gehigarriak, tresnak eta produktuak erabiliz, eta segurtasun-arauak betetzen direla bermatuz.

EI4.2 Kristala aztertzeko modua deskribatzea, garbiketaren ostean gera litezkeen zikinkeria-hondarrak atzematea, eta eragiketaren erroreak zuzentzeko prozedura azaltzea.

EI4.3 Laneko arriskuak identifikatzea kristalak garbitzeko zereginetan, eta prebentzio-prozeduren arabera jardutea.

## Edukiak

### 1. Kristalak garbitzeko teknikak.

- Gainazal kristaldun motak: konposizioa eta ezaugarriak.
- Lantokia prestatzea eta ordenatua mantentzea.
- Kristalak garbitzea kanpoko eta barruko espazioetan.

### 2. Gainazal kristaldunak garbitzeko oinarritzko ekipamenduaren erabilera.

- Beiragilearen tresnak, makinak eta erremintak.
- Tresna-motak.
- Haien kontserbazioa eta biltegitzea.
- Laneko tresna eta erreminten erabilera: jarraitu beharreko irizpideak.
- Garbitzeko produktu espezifikoaren erabilera.
  - o Saillapena.
  - o Oinarritzko erabilera-arauen aplikazioa.
  - o Dosifikazioa eta dosifikagailuen erabilera.

### 3. Langileen segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten neurriak.

Kristalak garbitzeari lotutako arriskuak

- Lantokiari dagozkion arriskuak.
- Norbera babesteko ekipoak erabiltzea.
- Altuerako lanetarako segurtasun-neurri espezifikoak aplikatzea.
- Laneko ingurunean pertsonak daudenerako segurtasun-neurriak ezagutu eta aplikatzea.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

### Sartzeko irizpideak

Sartzeko irizpiderik gabe

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan.